

KOSTUEN EGITURA

Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea dakartza, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du. Beraz, kostu mota ezberdinak bereiziko ditugu.

Aipatzekoa da gure eguzkitakoaren kalitate altuarengatik eta gure enpresa berri izaeragatik gutxieneko kostu batzuk espero ditugula, eta halakoxea izango da gure produktuaren prezioa ere. Dena dela, denboraren poderioz egonkortzen joatea eta kostuak optimizatze eta minimizatzen hastea espero dugu, ahalik eta kostu gutxien lortzera iritsi arte, prezioa ere jaitsiko delarik.

Gure enpresan kostu finkoa gailenduko zaio kostu aldakorrari, gure kostu nagusia eguzkitakoaren ekoizpen prozesuaren parte izango dela kontuan harturik. Kostu finkoari dagokionez, lokala, mantenua... izango ditugu. Hauen prezioa Estatuaren momentuko ekonomiaren menpe egongo da eta igoerak eta jaitsierak pairatuko ditu. Era berean, gure enpresak ere gorabeherak jasango ditu, gure produktuen lehengaiak garestiagoak izatean, hauen salmenta prezioa ere igo egingo delako, eta ondorioz, gure enpresaren gastuak handituko.

Lehen aipatu bezala, gure enpresaren ekonomiak gorabeherak izango ditu eta horiek, gure salmenten menpe ere egongo dira. Izan ere, gure enpresaren xedea beste enpresa batzuei lehengaiak erostean datza, eta zenbat eta kantitate handiagotan erosi, gero eta merkeagoak izango dira produktu hauek, gure eguzkitakoaren prezioari zuzenean eraginez. Gainera, aurreikusten ditugun emaitzekin, arrakastatsua izaten bada, eguzkitakoaren prezioa jaitsi egingo da herri xeheko biztanleriarentzat eskuragarri egongo delarik.

